

Berdintasunerako Jardunbide Egokien Bankua

Erabilerari buruzko Eskuliburua



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

01 SARRERA 3	02 SISTEMARA SARTZEA 5	03 BJEB KONTSULTA 7	04 NIRE BERDINTASUNE RAKO JARDUNBIDE EGOKIAK 9	05 PROZEDURA 12
---------------------------	--	-------------------------------------	---	------------------------------

01 SARRERA

Emakundeko Berdintasunerako Jardunbide Egokien Bankua” aplikazioaren xedea da Euskal Autonomi Erkidegoko nahiz kanpoko erakunde publikoek eta pribatuek berdintasunaren arloan abian jarri dituzten jardunbide egokiak bildu eta hedatzea.

Zer da jardunbide egokia?

Edozein arlotan martxan jarritako ekintzak, metodologiak eta tresnak dira eta ziurtatu dute emakumeen eta gizonen desberdintasun faktoreetan emaitza positiboekin aldaketak sartzeko gaitasuna dutela. Gainera, beste testuinguru batzuetan aplikatu daitezke.

Aplikazio horren bitartez, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak:

- **Herritar guztien** eskura jartzen du informazio osoa, erakunde publikoek eta pribatuek hainbat jarduketa-arlotan abiarazi dituzten berdintasunerako jardunbide egokiei buruz.
- Hainbat **erakundetako berdintasun politiken arduradunei** aukera ematen die eurek ordezkatzeko dituzten erakundeetan abiarazi dituzten berdintasunerako jardunbide egokiak erregistratu, ezagutzera eman, partekatu eta eguneratu ahal izateko.
- **Emakunderi** aukera ematen dio, helburu horretarako sortutako **Erakundeen arteko Lan Talde Teknikoaren** lankidetzarekin, berdintasunerako jardunbide egokiak jasotzeko, berrikusteko, katalogatzeko eta, egoki baderitzo, argitaratzeko, ahalik eta eraginkortasunik handienaz hedatze aldera.

Honako **erabiltzaile mota** hauentzako aplikazioa da:

- **Herritarrak**, argitara ematen diren berdintasunerako jardunbide egokiak kontsultatzeko informazio-sistemaren erabiltzaileak diren aldetik.
- **Erakundeetako berdintasun politiken arduradunak**, berdintasunaren arloko euren praktika egokiak proposatzeko eta kontrolatzeko.

Honako modulu hauek aurreikusten dira Emakundeko Berdintasunerako Jardunbide Egokien Bankua aplikazioan:

- **Berdintasunerako Jardunbide Egokien Bankuaren kontsulta:** herritarrei sarbide librea ematen die **argitaratutako jardunbide** egokiekin lotutako informazioa eskuratzeko, zenbait irizpideren bitartez.
- **Nire jardunbide egokiak:** Berdintasun politiken arduradun bakoitzari aukera ematen dio berak ordezkatzeko duen erakundearekin lotutako eta proposatutako jardunbide egokien gaineko informazioa kudeatzeko.

Orri nagusian honako hauek daude eskura maila orokorrean:

- **Nabarmendutako jardunbideak:** gehien kontsultatzen diren jardunbide egokien 10 fitxetarako zuzeneko sarbideak dituen atala; sarbide horiek erabiliz, kasuan kasuko jardunbide egokiaren fitxa bistaratu eta inprimatu daiteke
- **Bilatuenak:** testu librean bilatzeko irizpide gisa gehien erabiltzen diren eta ezegokitzat jotzen ez diren hitzak erakusten dira berariazko tarte honetan. Hitz horretako baten gainean sakatuta, "Izenburua", "Helburuak", "Deskribapena" eta "Lortutako emaitzak" eremuetan termino hori lotuta daukaten jardunbide egokien zerrenda lortuko da.

02 SISTEMARA SARTZEA

Erabiltzaileek aplikazioaren orri nagusira sartu ahal izango dira Emakunderen ataritik Zerbitzuak atalean.



[Sistemara sartzea](#)

Herritarrek, oro har, autentifikaziorik gabe jardungo dute interakzioan, eta argitaratuta dauden berdintasunerako jardunbide egokiei lotutako informazioa baino ezingo dute kontsultatu.

Erakunde publiko eta pribatuetako **berdintasun politiken arduradunek**, bai EAEkoek bai kanpokoek, euren jardunbide egokiak proposatu eta kontrolatu ahal izango dituzte “Jardunbide Egokien Bankua” aplikazioan, **behin sisteman erregistratuta eta balidatuta daudenean**.

Nor erregistratu ahal izango da sisteman bere jardunbide egokiak proposatu eta kontrolatzeko?

Hasiera batean, **entitate bakoitzetik berdintasun politiken arduradunak** izango du posible erregistratzea. Entitateetan pertsona interesatu gehiago egongo balitz, eskaera berdintasunen politiken arduradunen bidez egingo zaio Emakunderi. Erregistro-eskaera bat baliozkotzeko, erreferenziako pertsonak egiaztatu beharko du jardunbide egokiaz arduratzen den erakundearekin lotura duela.

Berdintasun politiken arduraduna erregistratu ekintzaren bitartez erregistratu ahal izango da; horretarako eskatzen den informazioa eman beharko du: izen-deiturak, NANA, sexua, telefonoa, helbide elektronikoa, erabiltzaile-izena...



**Berdintasun politiken arduradun
bezala erregistratu**

Behin erregistratu eta balidatutakoan, erakundeetako jardunbide egokien arloko berdintasun politiken arduradunek **Nire jardunbide egokiak** modulura sartu ahal izango dira eta handik euren jardunbide egokiak proposatu eta kontrolatu ahal izango dituzte, **erabiltzaile-izena** eta **pasahitza** idatzi eta **Sartu** sakatuta. Erregistro eskaera balidatzeko, berdintasun politiken arduradunak jardunbide egokiaren erakundearekin duen lotura egiaztatu beharko du.

Berdintasun politiken arduradunak **Pasahitza gogoratzeko** aukera izango dute.



Berdintasun politiken arduradunek honako eremu hauek kudeatu ahal izango dituzte euren erabiltzaile-kontuaren barruan: izen-deiturak, NANa, sexua, telefonoa, helbide elektronikoa eta hizkuntza lehenetsia.

03 BERDINTASUNERAKO JARDUNBIDE EGOKIEN BANKUAREN KONTSULTA

Herritarrek, oro har, **Berdintasunerako Jardunbide Egokien Bankua** aukeratik, argitaratuta dauden jardunbide egoki guztiekin lotutako informazioa kontsulta dezakete, honako bilaketa-irizpide hauen bitartez:

- **Jarduera arloa**
- **Jarduera mota**
- **Herrialdea**
- **Erkidegoa**
- **Probintzia**
- **Herria**
- **Erakundea (guztiak, haietako bat edo haietako batzuk).** Aurreko irizpideetan hautatutako erkidegoaren, probintziaren eta udalerraren arabera murriztuta egongo da.
- **Argitaratze-urtea:** urte-bitarte bat hautatu ahal izango da, alegia, urtetik urtera arte.
- **Testu-eremuetako bilatzailea:** fitxako "Izenburua", "Helburuak", "Deskribapena" eta "Lortutako emaitzak" eremuetan idatzitako testua bilatzen duena. Hitz bat baino gehiago idazten badira, denak batera zein banan bilatuko dira.

Kontsultatik lortutako emaitzak jardunbide egoki bati buruzko informazio hau erakutsiko du: **izenburua, laburpena, jarduketa-arloak, eta argitaratze-data**, argitaratu berrienetik aspaldikoenera.

Bilaketaren emaitza den zerrendaren barruan, badago jardunbide egokiaren fitxa HTML orri batean bistaratzeko aukera. Horretarako praktika egokiaren izenburuan klik egin behar da.

Izenburuaren gainean sakatzean,
jardunbide egokiaren fitxa
lortzen da

Jardunbide egokiari buruz ager daitekeen eta PDF formatuan inprima daitekeen informazio orokorra honako hau da:

Jardunbide egokien fitxa

Jardunbide egokien identifikazio

Deskribapena:

- ✓ Laburpena
- ✓ Deskribapena
- ✓ Emaitzak
- ✓ Alderdi berriztatzaileak
- ✓ Arrakasta faktorea.

Transferitua izateko gaitasuna

Instituzionalizazioa

Giza baliabideak eta baliabide ekonomiko eta materialak

Jarraipena

Jardunbide egokiari lotutako dokumentazioa

Testu librearen arabera bilatzeko irizpide gisa idazten diren hitz guztiak automatikoki sartuko dira **bilatutako hitzen hiztegi** batean. Hitz bakoitzeko, bera irizpide gisa zenbat aldiz idatzi den erakutsiko duen kontagailu bat gordeko da, eta hitz “ezegoki” gisa sailkatu ahal izango da, baja-data bat esleituz. Jardunbide egoki baten fitxan sartzen den bakoitzean, kontsultatutako jardunbide egokiari lotutako kontagailuak kontsulta bat gehiago kontatuko du.

04

NIRE

BERDINTASUNERAKO

JARDUNBIDE EGOKIAK

Berdintasun politiken arduradunak, erabiltzaile-izenaren eta pasahitzaren bidez bere burua identifikatu eta gero, **Nire jardunbide egokiak** modulura sartu ahal izango da, eta bertan **bistaratu/eguneratu** ahal izango du berak ordezkatzeko duen erakundeari lotutako jardunbide egoki guztien gaineko informazioa.

Berdintasun politiken arduradunak erakunde bat baino gehiago ordezkatzeko baditu, sistemak galdetuko dio zein erakunderekin lan egin nahi duen "Nire jardunbide egokiak" modulura sartzerakoan.

Nire jardunbide egokiak prozesutik eta **Erantsi** ekintzaren bitartez, alta eman ahal izango zaie lan egiten ari deneko erakundearekin lotutako jardunbide egoki berriei.

Proposatutako jardunbide egoki berriaren gaineko informazioari alta ematean, **Lokalizatzaile** bat esleitzen zaio: urtea/zk. korrelatiboa urte bakoitzeko eta erakunde bakoitzeko.

Erantsi ekintzaren bitartez, berdintasunerako jardunbide egoki berrien alta eman ahal izango da

Datuak hautatutako hizkuntzan euskara ala español (ES/EU) jarriko dira, eta gordetzeko orduan dauden bezala kopiatuko dira beste hizkuntzan.

Nahitaezkotzat jotzen da dokumentazioa eranstea berdintasunerako jardunbide egokiari.

Berdintasun politiken arduradunak, **Bidali jardunbide egokia** ekintzaren bitartez, jardunbide egokia Emakundera bidaltzen duenean, sarrerako erregistroa egingo da Emakunderen erregistro-liburuan, eta erreferentzia-zenbaki bat esleituko zaio Emakunden, honako kode honekin: urtea/zk. korrelatiboa urte bakoitzeko, Emakunderako.

Berdintasun politiken arduradunak erabiltzaileek jasota dauden jardunbide egoki guztiak kontsulta ditzakete **duen egoeraren arabera**, informazio-erlantzetan banatuta; hala ikus ditzakete:

Guztiak ikus ditzakete, edo *“Irekita”, “Balidatzeko zain”, “Balidatuta / Balidatu gabe” edo “Argitaratuta / Argitaratu gabe” daudenak.*

- **Irekita:** harik eta berdintasun politiken arduradunak berdintasunerako jardunbide egokiari buruzko informazio guztiaren bilketa amaitutzat eman eta informazio hori Emakunderi bidali arte.
- **Balidatzeko zain:** berdintasun politiken arduradunak jardunbide egokiari buruzko informazio guztiaren bilketa amaitutzat eman eta informazio hori Emakunderi bidaltzen dionean, berrikusi eta balida dezan.
- **Balidatuta / Balidatu gabe:** Helburu horretarako sortutako Erakundeen arteko Lan Talde Teknikoak jardunbide egokiaren datuak berrikusi eta hura balidatzen duenean, baliozkotzat edo baliogabetzat emanaz.
- **Argitaratuta / Argitaratu gabe:** Emakundek jardunbide egokia argitaratzeko erabakia erregistratzen duenean. Emakundek balidatzen ez duen bitartean, argitaratu gabe egongo da.

Nire jardunbide egokiak kontsultatzearen emaitza gisa, jardunbide egoki bakoitzaren laburpen-informazioaren aurrebista lortzen da, taula orrikatu moduan, hautatutako egoera-erlantzaren arabera:

- **Denak:** Erreferentzi zk.(Emakundekoa), Izenburura, Jarduera arloak, Jarduera motak, Entitate arduraduna, Jardunbide egokien egoera: Irekita, Balidatzeko zain, Balidatuta/Balidatuta gabe, Argitaratuta/Argitaratuta gabe. Erreferentzi zk-eremuan irekita egonez gero, ez da bistaratuko balorerik, berdintasun politiken arduradunarentzat jardunbide egokiaren lokalizatzailea baino ez baitago.
- **Irekita:** Localizadorea (berdintasun politiken arduradunarena), Izenburua, Jarduera arloak, Jarduera motak, Entitate arduraduna
- **Balidatzeko zain:** Erreferentzi zk.(Emakundekoa), Erregistro data, Izenburura, Jarduera arloak, Jarduera motak, Entitate arduraduna.

- **Balidatuta / Balidatu gabe:** Erreferentzi zk.(Emakundekoa), Erregistro data, Izenburua, Jarduera arloak, Jarduera motak, Entitate arduraduna, Baliostatze data.
- **Argitaratuta / Argitaratu gabe:** Erreferentzi zk.(Emakundekoa), Erregistro data, Izenburua, Jarduera arloak, Jarduera motak, Entitate arduraduna, Argitaratuta/argitaratuta gabe, argitaratzeko data.

Emaitzen zerrendatik, agenteak jardunbide egoki bat hauta dezake honako ekintza hauetako bat egiteko: editatu, ezabatu, fitxa ikusi eta fitxa inprimatu.

- Jardunbide egoki baten gaineko informazioa **editatu** eta **aldatu**, betiere “Irekita” badago.
- Jardunbide egoki baten gaineko informazioa **ezabatu**, betiere “Irekita” badago.
- Jardunbide egoki baten **fitxa ikusi** HTML orri batean, informazio jarraituarekin eta ataletan banatutako informazioarekin: Identifikazioa, Deskribapena, Transferigarritasuna, Instituzionalizazioa, Baliabideak, Jarraipena eta Dokumentazioa. Eremu bateko informaziorik ez badago, eremu hori ez da bistaratzen. Fitxaren orritik aukera dago haren ediziora berriro sartzeko edo fitxa inprimatzeko.
- Jardunbide egoki baten **fitxa inprimatu** PDF formatuan. Jardunbide egokiaren fitxa PDF formatuan bistaratuko da, bera inprimatzeko, informazio jarraituarekin eta gorago aipatutako ataletan banatutako informazioarekin.

05 PROZEDURA

Ekintza	Ekintzaren deskripzioa	Berdintasunerako jardunbide egokien egoera	Arduraduna
1. FASEA: BERDINTASUNERAKO ARDURADUN PERTSONA GISA ERREGISTRATU *komenigarria da Internet Explorer ez den nabigatzailea erabiltzea			
Sistemara sartzea	Aplikazioaren orri nagusira sartu ahal izango da Emakunderen ataritik, Zerbitzuak atalean. http://www.emakunde.euskadi.eus		Entitate desberdinen berdintasun politiken arduradunak
Erregistratu	Berdintasun politika arduradun gisa erregistratu, eskatzen den informazioa emanda: izen-deiturak, NANA, sexua, telefonoa, helbide elektronikoa, erabiltzaile-izena...		Entitate desberdinen berdintasun politiken arduradunak
Alta behinbetikoa ematea	Emakunden aplikazioa kudeatzeko arduradunak, berdintasunerako erreferentziako pertsona baieztatuko du eta behin betiko alta emango dio. Emailez konfirmatuko zaio.		Emakunde-aplikazioa kudeatzeko arduraduna
2. FASEA : NIRE JARDUNBIDE EGOKIEN MODULUARA SARTZEA			
Identifikazioa	Erabiltzaile-izenaren eta pasahitzaren bidez norbere burua identifikatu		Entitate desberdinen berdintasun politiken arduradunak
Jardunbide egokien berriaren erregistroa	Erantsita ekintzaren bitartez, jardunbide egoki berrien alta eman eta eskatutako informazioa atal desberdinetan bete: Identifikazioa, deskribapena, transferitua izateko gaitasun, baliabideak, jarraipena eta Dokumentazioa. *Nahitaezkotzat jotzen da dokumentazioa emanstea berdintasunerako jardunbide egokiari.	Irekita Harik eta agenteak berdintasunerako jardunbide egokiari buruzko informazio guztiaren bilketa amaitutzat eman eta informazio hori Emakunderi bidali arte.	Entitate desberdinen berdintasun politiken arduradunak
Bidali jardunbide egokia	Bidali jardunbide egokia ekintzaren bitartez	Balidatzeko zain berdintasun politiken arduradunak informazio guztiaren bilketa bukatuta ematen	Entitate desberdinen berdintasun politiken arduradunak

Ekintza	Ekintzaren deskripzioa	Berdintasunerako jardunbide egokien egoera	Arduraduna
		duenean eta Emakunderi berrikusteko eta balidatzeko bidaltzen dioenean.	
3. FASEA: JASO, BERRIKUSI ETA KATALOGATU BERDINTASUNERAKO JARDUNBIDE EGOKIA			
Jaso eta berrikusi jardunbide egokia	Behin jardunbide egokiak jasota berrikustea eta beraren balioespena egiten da		BJEB Erakundearen arteko Lan Talde Teknikoa
Aldaketa	Jardunbide egokiari aldaketak egitea pentsatzen bada komunikazioa pozta elektronikoz bidaliko zaio agenteari.		Emakunde-aplikazioa kudeatzeko arduraduna
Balidazioa	Behin egiaztatuta dena zuzen dagoela jardunbide egokia balidatzen da	Balidatuta / Balidatuta gabe Jardunbide egokiaren datuak berrikusi eta hura balidatzen direnean baliozkotzat edo balioz gabetzat emanez.	BJEB Erakundearen arteko Lan Talde Teknikoa
4. FASEA: BERDINTASUNERAKO JARDUNBIDE EGOKIAREN ARGITARATZEA			
Jardunbide egokiaren argitaratzea	Jardunbide egokia argitaratzeko erabakia erregistratzen denean	Argitaratuta / Argitaratuta gabe Emakundek balidatzen ez duen bitartean, argitaratu gabe egongo da.	Emakunde-aplikazioa kudeatzeko arduraduna

Emakunde

Manuel Iradier 36
01005 Vitoria-Gasteiz

Telefona: 945 01 67 00

Faxa: 945 01 67 01

Web: www.emakunde.euskadi.eus

E-mail: emakunde@euskadi.eus

Facebook: www.facebook.com/Emakunde